Nafarroako Kontseilua Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bidez sortu zen (urte bereko 37. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 26koa). Foru lege horrek 1999ko urriaren 1ean hartu zuen indarra, eta abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenak aldatu zuten.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legeak, ekainaren 15ean indarra hartu zuenak, indarrik gabe utzi zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea eta, Nafarroako Kontseilua eguneratzearren, araudi berria eman zion. Araudi horren bidez, haren kideen kopurua murriztu zen, eta aldatu ziren bai kideak hautatzeko era, bai Kontseiluko kideen, kide-idazkariaren nahiz buruaren agintaldiak duen iraupena; halaber, haren irizpenek –ordenamendu juridikoa betetzen dela zaintzeaz gain– abaguneari eta komenigarritasunari buruzko balorazioak eduki ditzakete, gaiaren izaeragatik edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatu duelako, eta, orobat, Administrazioak bere helburuak eraginkortasun handiagoz betetzeko bada.

Aipatutako legeez gain, Kontseilua bere erregelamenduaren bidez arautzen da: Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsia eta ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatua; azken horren bidez, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsitakoa, aldatzen da.

Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren 4.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren xede izandako gaietan ez du txosten juridikoa ematen ahalko Nafarroako Foru Komunitateko edo beste Administrazio Publiko bateko organo edo erakunde batek, ezta Estatuko Kontseiluak ere.

# 2.

## NAFARROAKO KONTSEILUAREN OSAERA ETA IZAERA.

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta organo gorena da. Bere eginkizunak betetzean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen direla begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek abagunearen eta komenigarritasunaren gaineko balorazioak izaten ahal dituzte, gaiaren izaerak horretara behartzen duenean edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatzen duenean, zein Administrazioak eraginkortasun handiagoa behar duenean bere helburuak betetzeko. Era berean, Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objektibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

Nafarroako Kontseilua bost kidek osatuko dute. Nafarroako Parlamentuak proposaturik eta gehiengo osoz hautaturik, Nafarroako Gobernuko lehendakariak izendatuko ditu kide horiek, entzute handia, gutxienez ere 15 urteko lanbide esperientzia eta nafartasun politikoa duten legelarien artean. Honako hauek proposatzen ahalko dituzte postu hutsak betetzeko izangaiak: a) Parlamentu-talde batek edo batzuek. b) Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak. c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

# 3.

## NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGUNGO OSAERA.

Ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du.

2021eko abenduaren 31n honako hau zen Nafarroako Kontseiluaren osaera:

**Lehendakaria:**
Alfredo Irujo Andueza jaun txit garaia

**Kontselukide-idazkaria:**
Hugo López López jaun txit prestua

**Kontseilukideak:**
Mª Angeles Egusquiza Balmaseda andre txit prestua

**José Luis Goñi Sein jaun txit prestua**
José Iruretagoyena Aldaz jaun txit prestua

## 4.
## NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGOITZA.

Nafarroako Kontseilua sortu zuen foru legearen 1.3 artikuluaren arabera, erakundeak Iruñean du bere egoitza.

2003ko ekainaren 2az geroztik, egoitza Iruñeko Emilio Arrieta kaleko 8an du, seigarren solairuan.

## 5.
## NAFARROAKO KONTSEILUKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEAK.

Nafarroako Kontseiluak, sortu zuen foru legeak aitortzen dion autonomia organikoaz eta funtzionalaz baliatuz, 2021eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen bere plantilla organikoa, lanpostu hauek osatua: legelari bat (funtzionarioa) eta Kontseiluko buruaren idazkaria (behin-behinekoa). Erabaki hori 2021eko 30. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 9an, onetsitako eduki eta xehetasunekin (argitalpenean daude jasota).

2021ean, Kontseiluko legelaria José Ignacio Labé Valenzuela jauna da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko funtzionarioa, eta Kontseiluko buruaren idazkaria, berriz, Mónica Muñoz Fernández andrea.

# 6.
## AURREKONTUA.

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako C00000 programan jasota dagoena, 453.382,00 eurokoa izan da 2021eko ekitaldian, honela banatuta:

| | | |
|---|---|---|
| **1. kapitulua** | **(Langileen gastuak)** | **205.012,00 euro.** |
| **2. kapitulua** | **(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)** | **220.370,00 euro.** |
| **6. kapitulua** | **(Inbertsio errealak)** | **28.000,00 euro.** |
| | **Guztira** | **453.382,00 euro** |

2021eko aurrekontu ekitaldia amaitu eta itxi ondoren, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu gauzatua honako hau da:

| | | |
|---|---|---|
| **1. kapitulua** | **(Langileen gastuak)** | **150.781,41 euro** |
| **2. kapitulua** | **(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)** | **122.769,51 euro** |
| **6. kapitulua** | **(Inbertsio errealak)** | **10.449,44 euro** |
| | **Guztira** | **284.000,36 euro** |

2. kapituluko aurrekontuaren betearazpena txikiagoa izatearen arrazoia da, hein handi batean, Nafarroako Kontseiluak ez diela azterlan eta lan teknikorik eskatu kanpoko adituei, eta 2010ean hasitako aurrezpen politikarekin jarraitu duela.

2022ko ekitaldirako, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Kontseiluak berak proposaturik, Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuko C00000 programan sartu zen, honela banatuta:

| | | |
|---|---|---|
| **1. kapitulua** | **(Langileen gastuak)** | **205.012,00 euro.** |
| **2. kapitulua** | **(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)** | **220.370,00 euro.** |
| **6. kapitulua** | **(Inbertsio errealak)** | **28.000,00 euro.** |
| | **Guztira** | **453.382,00 euro** |

# 7.
## WEBGUNEA.

Nafarroako Kontseiluak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garrantziaz jabeturik, bere webgunea sortu zuen 2001ean.

2006an, www.consejodenavarra.es webgunearen orriak diseinatu eta berrikusi ziren 'Web Content Accessibility Guidelines 1.0' (Web 1.0 edukiaren eskuragarritasunerako jarraibideak) izeneko agirian zehaztutako jarraibideen arabera; jarraibideak W3C-ko WAI lantaldeak eginak dira, eta bat datoz Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean ezarritakoarekin.

Web diseinu eskuragarriari esker, desgaitasun fisikoak, zentzumenezkoak edo kognitiboak direla eta saretik bazterturik egon ohi diren pertsonek, edo lan ingurunearekin edo oztopo teknologikoekin lotutako mugak dituztenek, webgune bateko edukiak eta zerbitzuak eskura izan ditzakete.

Webgunearen programazio eskuragarriak zerbitzuak eta edukiak plataforma askotatik eskura ditzaketen erabiltzaileen kopurua handitzen du, gunearen ikusgarritasuna hobetzen du bilatzaileetan, eta faktore horiek trafikoa areagotzea dakarte.

Nafarroako Kontseiluaren webgunera klikatuta ere sartzen ahal da: 'www.cfnavarra.es/consejonavarra'.

# 8.
## IRIZPENEN EDIZIOA.

2021an, Nafarroako Kontseiluak 2020ko irizpenak editatu eta argitaratu zituen, e-book euskarrian, baita 2000-2020 urteetako irizpen bilduma ere, USB euskarrian.

# 9.
## JARDUN INSTITUZIONALA.

Kontseiluko buruak Nafarroako Kontseilua ordezkatu zuen ekitaldi hauetan:

- Estatu Kontseiluko presidentea Aholku Kontseiluetako presidenteekin bildu zen ekainaren 8an bideokonferentzia bidez.
- Vianako Printzearen eta Kulturaren arteko Sariaren banaketa ekainaren 19an, Erriberriko Frantziskotarren elizan.
- Nafarroako Errege-Erreginen omenezko ekitaldia, Leireko Done Salbatore monasterioan, ekainaren 27an, 11:30ean.
- 2021-22 Donejakue Urtearen hasierako oroitzapenezko ekitaldia, uztailaren 12an, Orreagan, Espainiako Errege-erreginen partaidetzarekin.
- Urte Judizial berria irekitzeko ekitaldia, irailaren 24an.
- "Segurtasunaren erronkak XXI. mendean" jardunaldia, Guardia Zibilak antolatua, azaroaren 23an.
- 2021eko Kirol Merituari Urrezko eta Zilarrezko dominak emateko ekitaldia, azaroaren 30ean egina.
- Nafarroako Eguna dela-eta abenduaren 3an egiten direnak.

Abenduaren 18an eta 19an, Iruñeko Abokatuen Elkargoak egindako ekitaldietan, bere zaindariaren eguna ospatzeko.

# III
# KONTSULTA LANA

## 1.
## IRIZPEN ESKAEREN KOPURUA.

2021ean, berrogeita lau irizpen eskaera sartu ziren Nafarroako Kontseiluan.

## 2.
## DOKUMENTAZIOA.

Irizpen eskaera horietatik zortzitan espedientea osatu gabe zegoenez, beharrezkoa zen dokumentazio osagarriarekin osatzeko eskatu zen, eta irizpena emateko epea eten egin zen.

## 3.
## LANAK ITZULTZEA.

Kontsulta egin duen agintaritzari espediente bat itzuli zaio, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduan adierazitako baldintzak ez betetzeagatik.

## 4.
## EMANDAKO IRIZPENAK.

Nafarroako Kontseiluak berrogeita bat irizpen eman zituen 2021ean. Horietako lau 2020an egindako eskaerei dagozkie, eta gainerako hogeita hamazazpi irizpenak 2021an egindako kontsultei.

Hortaz, berrogeita lau eskaera onartu ziren, eta horietatik hogeita hamazazpitan eman zen irizpena. 2021eko abenduaren 31n, zazpi espediente zeuden irizpen zain; horietatik lau 2021eko abenduaren 21etik aitzina sartu ziren, eta beste bi administrazio eskatzaileak osatu zain zeuden.

Emandako irizpenak hauek izan dira, izaeraren arabera sailkatuta:

| | |
|---|---|
| **Fakultatiboak** | **3** |
| **Aginduzkoak** | **38** |




Emandako irizpenak irizpide hauen arabera sailkatu daitezke:

**a) Organo eskatzailearen arabera:**

| **Bidaltzailea** | **Zk.** |
|---|---|
| Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria | 38 |
| Nafarroako Parlamentuko lehendakaria | 3 |

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak igorritako eskaeretatik hamahiru toki entitateek egindako kontsultei dagozkie, Nafarroako Kontseiluari buruzko foru legearen 19.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**b) Jatorriaren arabera:**

| **Jatorria** | **Zk.** |
|---|---|
| Nafarroako Gobernua | 27 |
| Nafarroako Parlamentua | 3 |
| Toki-erakudeak | 11 |



| Nafarroako Gobernua, departamentuz departamentu: | Zk. |
|---|---|
| Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua | 3 |
| Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua | 0 |
| Lurralde Kohesiorako Departamentua | 0 |
| Ekonomia eta Ogasun Departamentua | 4 |
| Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua | 4 |
| Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua | 1 |
| Hezkuntza Departamentua | 3 |
| Eskubide Sozialetako Departamentua | 1 |
| Osasun Departamentua | 7 |
| Herritarrekiko Harremanetako Departamentua | 0 |
| Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departa-mentua | 1 |
| Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua | 3 |
| Kultura eta Kirol Departamentua | 0 |
| **GUZTIRA** | **27** |



**Gaien arabera:**

| Jakintzagaiak | Zk. |
|---|---|
| Konstituzio kontrakotasuneko errekurtsoak | 0 |
| Estatuko oinarrizko legedia garatzeko edo Europako erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak egitea.<br>*Irizpena: 25* | 1 |
| Legegintzako foru dekretuen proiektuak. | 0 |
| Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, eta haien aldaketak.<br>*Irizpenak: 1, 4, 8, 10, 11, 15, 17, 21, 26, 27, 28, 31, 36, 39, 40* | 15 |
| Berrikusteko administrazio errekurtsoak<br>*Irizpenak: 14, 32, 34* | 3 |
| 300.000,00 eurotik gorako kalte-ordainen eskaerak, kalte eta galerengatik<br>*Irizpenak: 3, 6, 7, 16, 18, 23, 33, 35* | 8 |
| Udal-mugarteen aldaketari buruzko espedienteak | 0 |
| Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena.<br>*Irizpenak: 2, 5, 9, 13, 19, 20, 22, 30, 37 eta 38* | 10 |
| Administrazio hitzarmen eta kontratuen interpretazioa, baliogabetasuna eta suntsiarazpena, kontratistak aurka egiten duenean.<br>*Irizpena: 12* | 1 |
| Bestelako gaiak<br>*Irizpenak: 24, 29, 41* | 3 |
| GUZTIRA | 41 |



## Konparazio azterlana, gaien arabera: 2013-2021 urteak

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2013-2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren Erreforma | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Estatuko oinarrizko legedia garatzeko edo Europako erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak | | | | | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 6 |
| Legegintzako foru dekretuen proiektuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| Konstituzio kontrakotasuneko errekurtsoak | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 |
| Hitzarmen Ekonomikoaren Erregelamendua | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Lankidetza hitzarmenak eta akordioak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Legeak betearazteko erregelamenduak | 23 | 20 | 13 | 10 | 15 | 12 | 15 | 5 | 15 | 128 |
| Transakzio judizialak edo judizioz kanpokoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Berrikusteko administrazio errekurtsoak | 1 | 1 | 2 | 10 | 11 | 4 | 3 | 0 | 3 | 35 |
| Administrazioaren ondare erantzukizuna | 7 | 8 | 11 | 22 | 15 | 7 | 8 | 10 | 8 | 96 |
| Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena | 5 | 3 | 8 | 8 | 5 | 12 | 12 | 9 | 10 | 72 |
| Udal-mugarteen aldaketari buruzko espedienteak | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | 4 |
| Administrazio kontratuak | 2 | 2 | 0 | 2 | 1 | 1 | 6 | 3 | 1 | 18 |
| Bestelako gaiak | 5 | 2 | 2 | 4 | 4 | 3 | 5 | 2 | 3 | 30 |
| | **45** | **39** | **36** | **56** | **53** | **40** | **54** | **30** | **41** | **394** |

## Konparazio azterlana, gaien arabera: 2013-2021 urteak



# 5.
## PRESAKO IZAERAZ EMANDAKO IRIZPENAK.

Presako izaeraz hiru irizpen eman dira.

# 6.
## IRIZPENAREN XEDE IZANDAKO GAIEI BURUZKO ERABAKIAK.

Nafarroako Kontseiluak, 2021eko abenduaren 31 arte, kontsulta eta irizpenaren xede izandako espedienteei buruzko 15 xedapen eta ebazpen administratiboren berri izan du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelako edo Kontseiluari jakinarazi zitzaizkiolako Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 4.4 *artikuluan ezarrita dagoenez, Nafarroako Kontseiluaren txostena jaso duten gaiei buruzko xedapen eta ebazpen administratiboetan adieraziko da horiek Kontseiluak emandako irizpenarekin bat datozen edo ez.*

Urte honetan ikusi denez, erregelamenduzko xedapenetan ohiko bihurtu da "Nafarroako Kontseiluarekin bat" dioen formula erabiltzea.

Esan beharra dago hartutako administrazio ebazpen eta xedapen gehienetan jaso egin direla Nafarroako Kontseiluak bere irizpenetan egindako ohartarazpenak.

# 7.
## NAFARROAKO KONTSEILUAREN BILKURAK.

Nafarroako Kontseiluak 16 bilkura egin ditu 2021ean.

# 8.
## IRIZPENEN ZENBAKIZKO AURKIBIDEA.

**Irizpena: 1/2021, urtarrilaren 26koa**
Foru dekretu baten proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita urriaren 17ko 85/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamendua. Horren bidez garatu zen Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez.

**Irizpena: 2/2021, urtarrilaren 26koa**
30/2019 Foru Agindua ofizioz berrikustea. Foru agindu horren bidez gaitzesten da zehapenak ezartzearen gainean ...... (e)k jarritako errekurtsoa.

**Irizpena: 3/2021, martxoaren 1ekoa**
Nafarroako Foru Administrazioaren ondare -erantzukizuna osasun laguntzagatik.

**Irizpena: 4/2021, martxoaren 1ekoa**
Foru dekretu baten proiektua, zeinaren bidez sortzen eta arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra.

**Irizpena: 5/2021, martxoaren 1ekoa**
Egintza deusezen berrikuspena.

**Irizpena: 6/2021, martxoaren 9koa**
Ondare erantzukizuna, meatze-ustiapenaren kontzesioaren luzapena ukatzeagatik.

**Irizpena: 7/2021, martxoaren 9koa**
Ondare-erantzukizuna, ondokoak emana ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ...

**Irizpena: 8/2021, martxoaren 29koa**
Foru dekretuaren proiektua, aldatzen duena Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua.

**Irizpena: 9/2021, apirilaren 13koa**
Erabateko deuseztapena, laguntza teknikorako kontratuan ordainsari gehigarriak aitortzeko presuntziozko egintzarena.

**Irizpena: 10/2021, apirilaren 13koa**
Foru dekretuaren proiektua, Nafarroako arrantza eremuak antolatzeko plan zuzentzaileak onesten dituena.

**Irizpena: 11/2021, apirilaren 13koa**
Foru dekretuaren proiektua, arauak ematen dituena Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko.

**Irizpena: 12/2021, maiatzaren 3koa**
Kirol-instalazioak kudeatzeko kontratua suntsiaraztea.

**Irizpena: 13/2021, maiatzaren 3koa**
Ofiziozko berrikuspena, atxiki gabeko zinegotzi batzuen izendapenarena: batzuk Lizarrako Udaleko tokiko gobernu batzarreko kide izendatuak, eta bat udaleko alkateorde.

**Irizpena: 14/2021, maiatzaren 10ekoa**
Berrikuspeneko errekurtso berezia, merezimenduen balorazio baten aurka, Buñuelgo Udaleko zerbitzu anitzetako lanpostu baten deialdian.

**Irizpena: 15/2021, maiatzaren 10ekoa**
Foru dekretuaren proiektua, aldatzen duena uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua.

**Irizpena: 16/2021, maiatzaren 20koa**
Nafarroako Foru Administrazioaren ondare -erantzukizuna osasun laguntzagatik.

**Irizpena: 17/2021, maiatzaren 20koa**
Foru dekretuaren proiektua, aldatzen duena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautu zuen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua.

**Irizpena: 18/2021, ekainaren 14koa**
Ondare-erantzukizuna, osasun zerbitzuen funtzionamenduaren ondoriozkoa.

**Irizpena: 19/2021, ekainaren 14koa**
Ofiziozko berrikuspena, Andosillako Udaleko Alkatetzak emandako ebazpen batena (ebazpen horrek biltegi baterako obren lizentzia eman zuen).

**Irizpena: 20/2021, ekainaren 25ekoa**
Ofiziozko berrikuspena, emakida honena: …….-ri enpresa txiki eta ertainetan inbertitzeko laguntza eman izana 2017ko deialdian.

**Irizpena: 21/2021, ekainaren 25ekoa**
Foru dekretuaren proiektua, irailaren 28ko 221/2011 Foru Dekretua aldatzen duena (horrek arautzen du lotura fisiko eta farmakologikoen erabilera Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetako gizarte zerbitzuen esparruan).

**Irizpena: 22/2021, ekainaren 25ekoa**
Ofiziozko berrikuspena, terraza bat instalatzeko baimenarena.

**Irizpena: 23/2021, ekainaren 25ekoa**
Nafarroako Foru Administrazioari ondare erantzukizuna eskatzea, osasun laguntza dela eta.

**Irizpena: 24/2021, uztailaren 28koa**
Zuzenbidera egokitzea Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an hartutako erabakia, ebazten duena Kontu-hartzailetza Nagusiaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arteko desadostasun bat, AUDENASAri faktura bat ordaintzeari buruzkoa.

**Irizpena: 25/2021, uztailaren 28koa**
Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua

**Irizpena: 26/2021, uztailaren 28koa**
Foru aginduaren proiektua, ezartzen dituena pertsonen osasunari edo segurtasunari, nekazaritzari, abeltzaintzari edo basa faunari kalte handiak sortzen dizkieten ehiza-espezieak kontrolatzeko metodoak.

**Irizpena: 27/2021, uztailaren 28koa**
Foru dekretuaren proiektua, hezkidetza arautzen duena Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan.

**Irizpena: 28/2021, uztailaren 28koa**
Foru dekretuaren proiektua, sortzen dituena, batetik, Nafarroako Foru Komunitatean hiltzeko laguntza emateko Berme eta Ebaluazio Batzordea, eta bestetik, Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen Erregistroa.

**Irizpena: 29/2021, abuztuaren 30ekoa**
Foru Legearen proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea aldatzen duena.

**Irizpena: 30/2021, irailaren 13koa**
Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Lekarozen dagoen Palacio de Arozteguia hoteleko obra-lizentzia.

**Irizpena: 31/2021, irailaren 13koa**
Foru Dekretuaren Proiektua, zeinak arautuko baitu Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua.

**Irizpena: 32/2021, irailaren 13koa**
Berrikusteko errekurtso berezia, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren martxoaren 23ko 49/2021eko Foru Aginduaren aurkakoa.

**Irizpena: 33/2021, irailaren 13koa**
Cortesko Udalaren ondare erantzukizuna, pertsona bat zezen ikuskizun batean hil zelako.

**Irizpena: 34/2021, urriaren 4koa**
Berrikusteko errekurtso berezia, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren abenduaren 9ko 212E/2020 Foru Aginduaren aurka jarria.

**Irizpena: 35/2021, azaroaren 19koa**
Nafarroako Foru Administrazioaren ondare -erantzukizuna osasun laguntzagatik.

**Irizpena: 36/2021, azaroaren 19koa**
Foru Dekretuaren Proiektua, zeinak onetsiko baitu Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua.

**Irizpena: 37/2021, azaroaren 19koa**
Ofiziozko berrikuspena, Funesko Udalaren 1986ko irailaren 1eko erabakiarena, udalaren ondasunaren lagapenari buruzkoa.

**Irizpena: 38/2021, azaroaren 19koa**
Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta Lizarrako alkateorde gisa atxikita ez dauden zinegotziek jasotako dietak onartzen dituzten erabakiak ofizioz berrikustea.

**Irizpena: 39/2021, abenduaren 20koa**
Dekretu-proiektua, esparru sanitario eta soziosanitarioko atxikimendu-hitzarmen bereziak arautzen dituena.

**Irizpena: 40/2021, abenduaren 20koa**
Foru Dekretuaren proiektua, zeinak onesten baitu Nafarroako Estatistika Kontseiluaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua.

**Irizpena: 41/2021, abenduaren 20koa**
Kontsulta, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariaren maiatzaren 6ko 45E/2021 Foru Agindua eta Haize-parkeei buruzko maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuan ezarritako epea luzatzeko Proiektu Estrategikoak ordenamendu juridikora egokitzeari buruzkoa.

**Dictamen: 37/2021, de 19 de noviembre**
Revisión de oficio de acuerdo municipal del Ayuntamiento de Funes, de 1 de septiembre de 1986, sobre cesión de bien municipal.

**Dictamen: 38/2021, de 19 de noviembre**
Revisión de oficio de los acuerdos aprobatorios de las dietas percibidas por concejales no adscritos como miembros de la Junta de Gobierno Local y Teniente de Alcalde del Ayuntamiento de Estella-Lizarra.

**Dictamen: 39/2021, de 20 de diciembre**
Proyecto de Decreto por el que se regulan los convenios singulares de vinculación en el ámbito sanitario y sociosanitario.

**Dictamen: 40/2021, de 20 de diciembre**
Proyecto de Decreto Foral por el que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo de Estadística de Navarra.

**Dictamen: 41/2021, de 20 de diciembre**
Consulta sobre la adecuación al ordenamiento jurídico de la Orden Foral 45E/2021, de 6 de mayo, del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos de prórroga de plazo establecido en el Decreto Foral 56/2019, de 8 de mayo, de parques eólicos.

NAFARROAKO
KONTSEILUA